

Lezoko Unibertsitateko Udala

---

**ALKATEAREN D 15/00714. DEKRETUA**

---

**TOKIKO GOBERNU BATZARREAN DELEGAZIOAK  
2015ALO30023**

---

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeko 21.3 artikulua eta Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen juridikoaren Arautegiko 43. artikuluan finkatzen denaren arabera, Alkatetza-Lehendakaritza honek hau erabaki du:


BAT: Indarrean dagoen legeriak Alkatetza-Lehendakaritzari ematen dizkion eskumenetatik Tokiko Gobernu Batzarraren baitan delegatzea ondorengo hauek:

- a) 50.001 € (Bez gabe) baino gehiagoko exekuzio-aurrekontua duten obretarako, eraikinak eraisteko, erabilpenak aldatzeko eta okupazio berrietarako lizentzia urbanistikoak ematea.
- b) Obra eta zerbitzu proiektuak onartzea eta obra, zerbitzu, hornidura eta laguntza teknikorako kontratuak baimentzea, xedatzea eta kontratatzea, 50.001 € (Bez gabe) baino gehiagokoak obra kontratuei dagokienez eta 18.001 € (Bez gabe) baino gehiagokoak hornidura, zerbitzu eta laguntza teknikoari dagokienez eta haien fakturak onartzea.
- c) 6.000 € (Bez gabe) baino gehiagoko zenbatekoa duten dirulaguntza eta transferentzia arruntak egitea.
- d) Aurri-deklarazioko espedienteak, berehalako hondamen ustekoa salbuetsirik, horren deklarazioaren berri Tokiko Gobernu Batzarrari eman egingo zaiolarik.
- e) Enplegu eskaintza publikoak eta deialdiak eta pertsonal finkoa hautatzeko oinarriak onartzea.
- f) Pertsonalaren urteko egutegia eta lanegunak onartzea.
- g) Pertsonal funtzionarioaren, laboralaren eta gainerako egoera administratibokoan eszedentziak eta jubilazioak ematea.
- h) Herri ondasunen ustiapenari buruzko intzidentziak.

BI: Dekretu honen berri Udaltzari emango zaio dagozkion ondorioetarako, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen juridikoaren Arautegiko 44.2 artikuluan finkatzen dena betetzeko.

HIRU: Erabakiaren aurkako errekursoak:

- a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsua aurkez dezake 30/1992 Legearen arabera.
  - Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
  - Errekurtsua aurkeztekotan Alkatetzara jo behar da.



## Lezoko Unibertsitateko Udala

- b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean.
- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
  - Errekurtsua aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.



Pedro Maria Garbizu Azkue, alkatea.